

Hamalagarrena. Izena: Foru parlamentarien eta langileen ordainsarien kudeaketa

- a) Oinarri juridikoa: Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.b) artikulua: Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratuaurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua.
- b) Tratamenduaren xedeak: parlamentarien eta langileen ordainsarien kudeaketa, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua eta Langileen Estatutuan jasotako ordainsari-sistemi dagokiena, nominak egitea eta bestelako likidazioak egitea, zeinetatik eratorzen baita hartzeak ordaintzea interesdunei.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Beren ordainsariak, edozein modalitatetan, Nafarroako Parlamentuarengandik jasotzen dituzten foru parlamentariak eta langileak.
- d) Datu-kategoriak:
 - Identifikazio-izaerakoak:
 - NAN/IFZ
 - Gizarte Segurantzaren/Mutualitatearen zenbakia
 - Izen-abizenak
 - Helbidea
 - Herria
 - Posta-kodea
 - Telefonoa
 - Xehetasun pertsonalei buruzkoak:
 - Egoera zibila
 - Familia-egoera
 - Jaioteguna
 - Sexua
 - Nazionalitatea
 - Enpleguari eta karrera administratiboari buruzko xehetasunak:
 - Kidegoa/eskala
 - Kategoria/gradua
 - Lanpostua
 - Kontratu-mota
 - Hautatutako ordainsari-mota (parlamentariak)
 - Ekonomikoak ez diren nominako datuak
 - Bankuko kontu-zenbakia
 - Lanbidearen historiala
 - Nor zein talde parlamentariotako kidea den
- e) Hartzaile-kategoriak: Urtero lagako zaizkio Nafarroako Zerga Ogasunari pertsona fisikoen errentaren zergari buruzko datuak, bai eta, behar den aldizkakotasunaz, pasiboen unitate organikoei ere. Halaber, Gizarte Segurantzari eta gizarte-aurreikuspeneko entitateei enplegatuen datuak eta kotizazio-oinarriak lagako zaizkie. Hilero, banku-entitateei lagako

zaizkie, langileen ordainsariak ordaintze aldera. Urtero, Kontuen Ganberak auditoria bat egiten du.

- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlametuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.